



Jasangarritasunerako

kultura berria



Nafarroako
Gobernua



Nafarroako Ingurumen
Arloko Baliabide Zentroa
FUNDAZIOA


Nor gara

Ingurumen arloan kultura berria
eraikitzea eta nafar gizartearen
iraunkortasunean aurrera egitea;
horixe da gure konpromisoa

Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa (CRANA) irabazi asmorik gabeko fundazioa da eta Nafarroako Gobernuak sustatua dago, beste bi enpresa publiko hauekin batera: Ingurumen Kudeaketa- Nafarroako Mintegiak eta Basoberritzeak (GAVRN) eta Nafarroako Industria Ingurumena (NAMAINSA). 2003an sortu ginen, gizartearen parte-hartzea bideratzeko prozesu baten ondorioz; Nafarroako Ingurumen-Hezkuntzaren arloko Estrategiaren ondorioz, hain zuzen.

Gobernuarekin eta gizarte erakundeekin ari gara elkarlanean, denon arteko ekarpenak aintzat hartu eta nafar gizarteak ingurumena hobeki ezagut dezan; horrela, gizarteak arduraz jokatu du, ingurumena zaintzeko eta hobetzeko.

Gure proiektu guztietan elkarrikeria, adostasuna, eztabaida, gogoeta eta gizarte osoaren parte-hartzea sustatzen ditugu. Gure jarrera eraikitzailea da eta, alde horretatik, jende, administrazio eta enpresa asko animatu ditugu gurekin lan egitera.



- Informazioa
- Liburutegia
- Prestakuntza
- Ebaluazioak eta azterlanak
- Tailerrak eta ikastaroak
- Dokumentazio Zentroa
- Ingurumen arloko auditoriak

- Erakusketak
- Parte-hartze prozesuak
- Teknologia garbiak
- Jarduera Egokiak
- Jardunaldiak eta mintegiak
- Argitalpenak
- Bilera Aretoa
- Prentsa Bulegoa



www.crana.org

- Energia eta Klima Aldaketa
- Mugikortasuna
- Ura eta ibaiak
- Kontsumo Arduratsua
- Ingurumeneko Boluntarioak
- Enpresen Gizarte Erantzunkizuna
- Hondakinak
- Bioaniztasuna



Nor gara

Eginkizun bat dugu...

Gure erkidegoak iraunkortasunean aurrera egin dezan sustatzea; horretarako, gizarteak eta erakundeek ingurumen arloko erantzukizunez jokatzeko jarduketak sustatu eta egituratzen ditugu, Ingurumen-Hezkuntzaren bitartez.

...Eta balioak ere bai

Berrikuntza, gai berriak sustatuz.

Elkarlana. Ez ditugu gauzak bakarrik egin nahi. Ahalegintzen gara beste erakunde, administrazio, enpresa, elkarte eta abarrekin itunak egiten.

Erantzukizuna, gure konpromisoak betetzeko.

Errespetua eta tolerantzia ingurumeneko arazoak ulertzeko era desberdinen aurrean.

Kudeaketa **gardena**.

Hona hemen lortu nahi ditugun helburuak...

Ingurumen arloko informazioa zabaltzea eta, gizarte erakundeen eta gobernuaren artean, partehartze nahiz elkarlan prozesuak sustatzea.

Ingurumena politika publikoetan zein pribatuetsar dadin bultzatzea, ardurakidetza esaten zaion printzipioa sustatzeko.

Kontsumo arduratsua sustatzea, bai eta iraunkortasunaren merkatua suspertuko duen araudia ere.

Estatuko eta Europako beste erakunde batzuekin **elkarlanean aritzeko esparruak ezartzea**, elkarrekin iraunkortasunaren alde lan egiteko; garapenaren aldeko lankidetzaprogrametan laguntzea.

Gure zerbitzuen kalitatea eta gizartearen beharrei ematen diegun erantzuna **etengabe hobetzeko sistema** bat ezartzea.

Nori zuzentzen gatzaizkie...?

Administrazio publikoari: gobernuari, departamentuei eta langile teknikariei.

toki entitateei: udalei, kontzejuei, mankomunitateei, garapen agentziei eta turismo partzuergoei.

Enpresari: enpresa txiki eta ertainei, elkargo profesionalei, nekazariei, sindikatuiei...

Hezkuntza-erkidegoari: institutuei, eskolei, unibertsitatei, irakasleei.

Herritarren, profesionalen, auzokideen, ekologisten... **elkarteei**.

Komunikabideei.

Herritarrei.





Ez gaude bakarrik

CRANak esperientzia ere badu tokiko, estatuko eta Europako proiektuak sustatzen eta laguntzen. Ingurumenaren kudeaketan ari diren Espainiako erakunde nagusiekin aritzen gara elkarlanean, bai eta ingurumenean proiektuak sustatzen dituzten Europako erakundeekin ere.

Parte-hartzeak aukera eman digu erakunde aitzindariak garatzen ari diren bestelako lan ildoak eta bestelako lan metodoak ezagutzeko; praktikarik hoberenak identifikatu eta esperientzia pilotuak egiten ditugu, ikasitako guztia gure erkidegoaren zerbitzuan jartzeko.

Zer eskaintzen dugu?

Gizarte-ingurumen arloko ekimenak sustatzeko topalekua sortu dugu; azken batez, trukaketa eta koordinazio toki bat da, ingurumena ezagutu eta haren aldeko lanean aritu nahi duten jende eta talde guztientzako



→ Argibidea eta Dokumentazioa

Liburutegi espezializatua dugu ingurumenean, iraunkortasunean eta ingurumen-hezkuntzan. Dibulgaziozko materialak eta material teknikoak kontsultatzeko eta mailegutuan uzteko zerbitzua eskaintzen dugu. Liburutegiko katalogoa Interneten dago eskura
> www.catalogobiblioteca.crana.org

Era berean, Nafarroako ingurumen arloko baliabideen gida osoa dugu eskura
> www.guiaderecursos.crana.org

→ Aholkularitza

Aholkularitza zerbitzua ematen dugu arlootan: ingurumenean, energian eta enpresen gizarte erantzukizunean, enpresa, udal eta administrazioen erakundeentzako, bai eta ikastetxe eta auzokide-erkidegoentzako ere.

→ Gizartearen parte-hartzea kudeatzea

Kontua da sektore eta sentsibilitate guztiek ingurumenari buruzko erabakietan parte har dezatela. Hartara, hainbat foro abiarazi ditugu, gizartearen parte-hartzea bideratzeko; esaterako, Energiak Batuz Foroa, Nafarroako Uraren Foroa, Kontsumo Arduratsuen Foroa eta Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Foroa, bai eta ingurumen arloko boluntarioentzako programak ere, betiere beste erakunde batzuekin elkarlanean.

→ Prestakuntza

Ingurumena Administrazioan eta ekoizpen-sektoreetan sar dadin sustatzeko, prestakuntzaren arloan dauden beharrei buruzko diagnosiak egitea bultzatzen dugu, bai eta kasuan kasuko egoeretara egokitutako prestakuntza planak ere.

→ Teknologia garbi eta eraginkorren zabalkundea

Ekoizpen- eta merkataritza-enprekin elkarlanean, teknologia garbietan gaur egun dauden aurrerapen eta proposamen garatuenak erakusten ditugu, ekoizpen eta zerbitzu arloetako hainbat esparrutan aplikatuta.

→ Komunikazioa eta erakusketak

Ingurumen arloko ekimen berrien (publikoen eta pribatuen) komunikazioa eta zabalkundea sustatzen ditugu; hartara, mintzaldiak, solasaldiak eta mintegiak antolatu, eta era berean, prentsa-kabinetearen lanak egiten ditugu, zerbitzu hori eskatzen duen taldearentzat. Halaber, ingurumen arloko edukia duten erakusketak eskaintzen ditugu; Udalei, ikastetxeei eta bestelako taldeei doan uzten dizkiegu.

→ Argitalpenak eta azterlanak

Gizarte-ingurumen arloko gaiak jorratzen dituzten argitalpenak plazaratzen ditugu; besteak beste, ingurumeneko jardunbide onak sustatzeko gidak. Era berean, azterlanak egiten ditugu; besteak beste, Ecobarómetro de Navarra, hau da, ingurumenarekin lotura duten jarreraren eta portaeren gaineko aldian behingo inkesta da.

Zer egiten dugu?

Energia eta Klima aldaketa

Energiaren inguruko kultura berria sortu nahi dugu, energia aurreztu eta eraginkortasunez erabiltzeko; hau da, kultura berri hori administrazioan, lanean eta gure bizimoduetan txertatu beharra dago, Nafarroako Energiaren Planean ezarrita dagoen bezalaxe.

Ibilbide luzea egina dugu energia aurreztu eta eraginkortasunez erabiltzeko programak prestatu eta abian jartzerakoan, bai udal eraikinetan, bai auzokideen erki-degoetan, bai ikastetxeetan, bai bestelako erakundeetan (Aurrezki Kutxetan, Elkartean, etab.); era berean, esperientzia zabala dugu etxebizitzak irizpide ekologikoen arabera zaharbertzeko. Ildo horretan berean, herritarren ekimenak sustatzen ditugu, klima-aldaketari aurre egiteko.

> energia@crana.org



ENERGIAK BATUZ

Gizon-emakumeok eta erakundeek -txikiek eta handiek- energia gutxiago kontsumitu dezakegu; horretarako, eraginkorrago, arduratsuago eta ekologikoago izan behar dugu elektrizitatea, argia, ura eta klimatizazioa erabiltzerakoan. Kioto Etxebizitzak programan parte hartzen duten familiek erakutsi dute hori, Fondo CeroCO₂ Navarra ekimenaren bidez lankidetzako proiektuak finantzatzen dituzten erakundeek erakutsi duten bezala, bai eta Apustu Energetikoan esaten zaion ekimenean kontsumoak murrizteko konpromiso publikoa hartu duten erakundeek ere.

Mugikortasuna

Gobernuarekin eta udalekin elkarlanean ari gara, mugikortasun iraunkorragoa sustatzeko. Horretarako, udalek eta erakunde publikoek mugikortasun iraunkorren aldeko programetan parte har dezaten sustatzen dugu (Iruñerria, Tuterako Lesaka, Cintruengo, etab.); esaterako, bizikletaren erabilera eta gidatze eraginkorra sustatu ditugu.

> energia@crana.org



BICINTRUÉNIGO

Cranak aholkularitza zerbitzua eman die Cintruénigoko Udalari eta herriko La Paz institutuari, bizikleta sustatzeko plana egiteko, ikasleak eta irakasleak ikastetxera bizikletaz joan daitezten. Horretarako, ikastetxeko kurrikulumean bizikleta eta hura nola mantendu sartu eta, era berean, alokairua sustatu dute. Halaber, udalari laguntza eman diogu, ibilbide segurua bermatzera bideratutako neurriak har ditzan.





Ura eta ibaiak

Nafarroako Uraren Foroaren bitartez, herritarrek informazioa jasotzea eta Nafarroako uraren kudeaketan parte hartzea sustatzen dugu. Horrela, gobernuarekin, konfederazio hidrografikoeekin, toki entitateekin eta bestelako erakundeekin ari gara elkarlanean, Urari buruzko Esparru-Zuzentaraua aplikatzeko. Ikaste-txeetan, bestalde, gazte foro bat abiarazi dugu, eta boluntarioentzako programa bat, ibaietan aritzeko. Halaber, udalek eta beste erakunde batzuek jardunbide onak hartzea sustatzen dugu.

> agua@crana.org



KONPONBIDE BILA

Administrazioek eta sentsibilitate nahiz diskurtso desberdinak dituzten gizarte eragileek elkarrekin lan egin dute, ibai bakoitzean eta, oro har, uraren kudeaketan, zer arazo dauden eta zer neurri hartu behar diren zehazteko. Nafarroako ibai-arro askotako foroak bildu dira: Arga, Aragoi, Zidakos, Bidasoa eta Ega ibaiakoak. Foroek ederki erakutsi dute urarena bezalako kontu delikatu batean adostasunak lor daitezkeela, denon arteko neurriak proposa daitezkeela eta bestearengandik zer ikasia badagoela.



Ingurumeneko boluntarioak

Ingurumeneko boluntariorik ari diren erakundeei eta jendeari laguntzen diegu, ingurumenaren kudeaketan parte hartzea bideratzeko esparruak errazteko: esaterako, naturguneak zaintzea, oihan ondarea hobetzea, landa eremuetako inguruneak lehengoratzea, historia eta etnografia arloetako inguruneak zaintzea, eta azkenik, hiri ingurunea lehengoratzea eta hiri iraunkorrak sustatzea. Hainbat gauza eskaintzen dizkiegu: aholkularitza teknikoa, prestakuntza, aseguruak eta materialak, bai eta erakunde boluntarioen sarea ere.

> voluntariado@crana.org



BOLUNTARIOAK ERREKARA

Boluntarioentzako programa bat abiarazi dugu ibai-esparruetan, hezeguneetan eta ibaiertzeko inguruneetan; guztiak ere Nafarroako hainbat ibai-arrotan, tokian tokiko taldeekin elkarlanean. Horrela, adibidez, Bidasoa ibaia garbitzeko jardunaldiak egin dira bai Donezteben bai Sunbillan; bestalde, espeleologoek gidatuta, Lizarrako Longinos kobazuloa bisitatzeko aukera izan da, bai eta urari lotuta dagoen arkitektura-ondarea berreskuratzen hasteko aukera ere.



Zer egiten dugu?

Kontsumo arduratsua

Lanean ari gara, ingurumena are gehiago errespetatuko duen eta sozialki are zuzenagoa izan den kontsumoa lortzeko. Hiru arlotan saiatu gara, batez ere; hona hemen: administrazioentzako aholkularitza, erosketa publikoa iraunkorra izan dadin; ekitaldi iraunkorragoak antola daitezen sustatzea, eta hirugarrenik, gure kontsumoak ingurumenean eta gizartean duen eraginaren gainean jendea sentsibilizatzea (batez ere, elikaduraran). Kontsumo Arduratsuaren Foroa ere dinamizatzen dugu. Beraz, halako eta holako jarduketan bidez, jarduera horiek ingurumenean sortzen dituzten eraginak murriztu nahi ditugu.

> consumo@crana.org



KONTRATAZIO-PLEGU BERDEAK

Halako plegu-eredu batzuk prestatu ditugu, udalentszako, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean. Horrela, instalazioak garbitzeko plegu ereduak idatzita dago; beste bat, paperari buruz; eta berdeguneei buruzko bat ere bai. Beraz, plegu horietan oinarriturik, toki entitateek aipatu arloetan behar dituzten pleguak idatziko dituzte, betiere ingurumen iraunkorraren irizpideei jarraiki. Ildo horretan, Antsoaingo udalbatzak, esate baterako, berdeguneei buruzko plegua onetsia du, irizpide berri horiek aintzat hartuta.





Hondakinak

Nafarroako Gobernuarekin eta mankomunitateekin batera ari gara, hondakinak kudeaketa hobetzeko, hezkuntzaren eta parte-hartzearen bitartez. Horrela, mankomunitateen artean esperientziak eta ekintza bateratuak trukatzeko sustatzen dugu, eta jendea hezteko eta sensibilizatzeko ekintzak ere garatzen ditugu, baita jendearentzako komunikazio-ekintzak ere.

> residuos@crana.org



ETXeko KONPOSTAJEA

Mankomunitateei laguntzen diegu, etxeko konpostajea jendearen artean susta dezaten. Konpostajea gai organikoa ongari eraldatzeko prozesu naturala da. Horrela, ibarreko mankomunitateak abiarazitako esperientzia pilotu batean ari dira Itzarbeibarko ehun bat familia. Proiektu horren bitartez, eskualdeko gai organikoak murrizteaz gain, jendea ere gaituko dute, konposta eskala txikian egiteko.

Enpresen Gizarte Erantzukizuna

Ekonomia eta gizarte arloko eragileekin batera, enpresa txiki eta ertainei laguntza ematen diegu, ingurumenarekin bat joka dezaten; horretarako, ingurumen arloko diagnosi eta auditoria zerbitzua eskaintzen diegu, eta eskaini ere, hobekuntza planak prestatzeko eta jardunbide onak zabaltzeko aukera, enpresa-erakundeekin elkarlanean. Era berean, ingurumen arloko aholkularitza zerbitzuak eskaintzeaz gain, enpresei hobekuntza zehatzak egiteko gidak ere prestatzen dizkiegu, bai eta behar den informazio guztia ere. Izan ere, lan hori Enpresen Gizarte Erantzukizuna Sustatzeko Planaren baitan dago; plan horrek, zehazki, enpresak eta administrazioak bultzatu nahi ditu, haien planifikazio estrategikoan ingurumen eta gizarte arloko irizpideak sar ditzaten.

> empresas@crana.org



INGURUMENA HOBETZEKO PLANA

Auditoriak egin dizkiegun enpresen herenak hobekuntza plana egitea erabaki dute, aholkulari baten bidez. Enpresa ertain eta txiki horiek, orain, ingurumen arloko araudia betetzen dute eta jardunbide onak aplikatzen hasi dira. Lehen urratsa hobekuntza planak gauzatzeko erabakia izan da, ingurumena kudeatzeko sistema bat ezartzeko. Hona hemen emaitza batzuk: lehengaietako gastu handiegia murriztea, energia aurrezteak, prozesuko gauza ez-eraginkorrak ezabatzea eta hondakinak nahiz isuriak murriztea.

Instalazioak



→ **Ingurumen arloko Dokumentaziorako Zentroa:**
Liburuak, aldizkariak, bideoak, txostenak. 7.00tik gora ale daude eskura, kontsultatzeko eta mailegutan uzteko.

→ **Erakusketa iraunkorra:**
Bisita gidatuak antolatzen dira, horixe eskatzen duten taldeentzako.

→ **Erabilera askotarako gela:**
80 lagunentzako tokia du eta gizarte-ingurumen arloko informazio, prestakuntza eta parte-hartze jarduerak egin nahi dituzten erakunde guztientzako zabalik dago.

Harremanetarako

Iruñean gaude, Txantrea auzoan, Antsoaingo mugan:
Aita Adoain k., 217 behea.
31015 Iruña (Nafarroa)
Telefonoa: 948 140 818
Faxa: 948 123 235
E-posta: crana@crana.org



3. eta 7. lineak (Geltokia: Atarrabiako etorbidea, 4);
11. linea (Geltokia: Juan de Tarazona k.,297)



www.crana.org
www.guiaderecursoscrana.org



Nafarroako Ingurumen
Arloko Baliabide Zentroa
FUNDAZIOA